

## f) ASKO ETORRI DIRA ALA ASKO ETORRI DA?

Anbrosio Zatarain jaunaren txostena, Larresorok duela sei urte *Sustrai bila* liburuan eman zituen iritzien azterketaz "asko etorri dira" eta "asko etorri da" esaldiak aztertzen dituena, zenbait exenplu eta adibide agertuaz.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

*Euskaltzainburua*  
LUIS VILLASANTE

*Idazkaria*  
Juan San Martín

1976 - V - 28

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1976ko maiatzaren 28an, arratsaldeko lauretan bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, A. Arrue, J. L. Davant, X. Diharce, A. Irigoyen, P. Lafitte, J. M. Satrustegi, euskaltzain jaunak; M. Atxaga, I. Berriatua, J. Garmendia Larrañaga, J. Intxausti, X. Kintana, E. Knörr, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, J. A. Loidi, J. A. Retolaza, J. Zaitegi, A. Zatarain eta J. J. Zearereta laguntzaile jaunak J. San Martín idazkari dela.

Larre, Larzabal eta Lojendio jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Apirileko agiria onartu da.

## a) HAR-EMANAK

Madrid-etik Revista de la Universidad Complutense delakoak bere 92. zenbakia igortzen digu "La poesía actual" (I) izenekoa, eta urrengo zenbakirako euskal eleberrieri buruzko lan bat eskatzen digute eta datorren urtearen lehen parterako antzerkiari buruzkoa. Lan hontaz nor arduratuko den ezta erabagi.

Idazkari ordezekoak Instituto de Ciencias de la Educación delakoari buruzko berriak eman ditu. Bilinguismo eta Bikulturalismoz Tarragonan egingo dituzten bileretara X. Mendiguren joango da gure izenean eta hurrengo batzarrean emango digu berak beren albisteak.

Jakin argitaldariaren eskaria, Axularren *Gero*-ren argitalpen berria, itzulpenez eta oharrez eginen dutena, inprimategira sartua dutela eta Euskaltzaindiaren babespena eskatuaz. Onartua izan da.

Gasteizko udaletxeak, urteko laguntzaz, Euskaltzaindiari 200.000,- pezeta ematea erabaki du. Gure eskerrak agertzea erabaki da.

Gipuzkoako Amnistiaren Elkarteak erregeri egiten dion eskariaren berri ematen digu, era berean Euskaltzaindiak ere amnistia eskaria egin dezan. Gai hau ezta Euskaltzaindiaren helburuetakoa baina zenbait iritzi jaso ondorean euskaltzain oso guztiei galdezka idaztea erabaki da.

Liburuzainak D. Peillen, X. Gereño, J. A. Arana Martija, C. Uriarte, Lauroko ikastolak eta Banco de Bilbaok emandako liburu eta aldizkarien berri eman du.

J. J. Zearreta ekonomi eragintza arduradunak 1976ko lehen hiru hila-beteko diru-kontuak, kutxa eta bankuetan guztiz zegoena, 186.639,57 pezeta; gehitua, 445.600,06; urritua, 416.261,79; eta dagoena, 215.977,84 pezeta. Ondorean gehitu-urrituen zertzeladarik aipagarrienen xehetasunak eman ditu eta diru-etxeetan nola banaturik dagoenaren berri.

#### b) GOIZEKO BILKURAREN BERRI

Gramatika batzordea izendatu da, J. A. Letamendia idazkari, P. Altuna, J. Intxausti eta Jesus Arzamendi jaunek osatua, eta beste ondorengo hauek kontseilari saileko: A. Omaetxebarria, F. Mendizabal, J. Haritschelhar, L. Mitxelena, A. Irigoyen, I. Berriatua, X. Kintana, P. Lafitte, X. Gereño, J. L. Alvarez Enparantza, J. Basterretxea, J. R. Etxebarria, A. Irigaray, L. Villasante, J. J. Zearreta eta X. Mendiguren jaunak.

Aurtengo biltzar irekiak: Abuztuaren 22an Maulen Davant jaunaren sarrera hitzaldia, P. Larzabal jaunaren erantzunakin. Irailaren lehen partean, Donostiako Euskal festetan, Bilintxen omenezko bilera. Eta Odon Apraizen omenezkoa Azarorako atzeratzen da.

#### d) EUSKARA GEORGIAKO UNIBERTSITATEAN

Xabier Kintana jaunak txosten labur baten bidez eman du Georgia aldean euskara eta euskal kulturari buruz zer lanetan ari diren. Greta Txantladze andereakin dituen har-emanetatik jakin du Xota Dzidziguri akademikidearen eta Tabagua irakaslearen laguntzaz, Tbilisiko Unibertsitatean, irailean hasita, euskara asignaturatzat ofizialki ezarriko dela, G. Txantladze irakasle delarik. Horrez gainera, Dzidziguri eta Tabagua jaunen ardurapean Euskaltzaleen Elkartearen eratu berri dela Georgian; beronen helburua, Euskal Herriko hizkuntza, historia eta kultura ezagutarazte izaki.

Zorionak ematen gutun bat idaztea erabaki da.

#### e) ERRETORIKA KLASIKOAREN ERAGINA AXULARREN AIPAMENEN ITZULPENETAN

Juan Antonio Letamendia Perez de San Roman euskaltzain laguntzailerri den jaunaren txostena. *Gero* liburuaren barna itzulpen zatiak bere muinean zelan eramanak zituen aztertzen du, erretorikaren errekursoez nola baliatzen zen agertuaz. Latinez jarririk dauzkan esaldiak hartzen ditu oinarri eta hauek euskaratzean itzultzailearen ezin ukatuzko estilo nahia agerraraziz. Axularren erretorika zaletasuna axola handiko eragile bezala hartu beharra itzulpena makurtzen duten beste arrazoian artean, eta hauek ukatzeko inolako asmorik gabe. Liburuan zehar aurkitu dituen esaldien hildotik agertu ditu Letamendiak bere lekukotasunak.

#### f) "TAR", "KO", "ENEKKO" IZEN-DEITURETAN

J. L. Lizundia jaunaren txostena. "-tar" "-ko" eta "-eneko" S. Aranak nola erabili zuen eta Azkuek zer uste zuen agertu ondorean gaur egun

oraindik Durangaldean nola erabiltzen denaren berri ematen du eta bata bestegandik nola bereizten dituzten. Pertsona soila denean eta pertsona familiaren jatorriari loturik erabiltzen denean, herriko jendeagandik zuzenki jasotako agiriari adibidetasunez eman ditu. Baita ere deitura eta toki izenetako azentu diakritikoaz, deitura elkartu eta deitura luze batzuen arteko bereizkuntzaz ere mintzatu zen.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

*Euskaltzainburua*  
*LUIS VILLASANTE*

*Idazkaria*  
*Juan San Martin*

1976 - VI - 25

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1976ko ekainaren 25ean, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, A. Arrue, I. Irigoyen, P. Lafitte eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; X. Aranburu, M. Atxaga, J. Garmendia Larrañaga, S. Garmendia, X. Gereño, J. Intxausti, E. Knörr, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, X. Mendiguren, J. Oregi, J. M. Torrealday, P. Uribarren, J. Zaitegi, A. Zatarain eta J. J. Zearreta laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dela.

Davant, Diharce, Larzabal eta Larre jaunek ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Maiatzeko agiria onartu da.

#### a) HAR-EMANAK

Loiolako eta Donostiako herri irratien izenean, A. Arregi eta J. R. Beloki jaunak ditugu egun gurekin, "24 orduak euskaraz" deitu egunaren berri ematera etorriak. Beloki jaunak, egun hartan bildu zenaren eta gas-tatu zenaren berri eman digu eta ondorean, Arregi irrati zuzendariak superabit dirua eskuz ematen dio euskaltzainburu jaunari. Anoetako jaialdian bildutako dirua: 1.210.800,—; gastuetan emana: 856.994,—; Euskaltzaindiarentzat gelditu dena, guztiz: 353.806,— pezeta. Beren lan ederragatik eta laguntza honegatik batzarkideon eskerrak agertzen zaizkie.

Azpeitiko udaletxeak lehen "Karmelo Etxegaray" literatura sariketa-rako epai-mahaia eskatu digunez, euskarazko ipuiak eta olerkiak epaitze-ko, jaun hauek izendatzen dira: Ipui sariketarako, J. Oregi, J. A. Letamendia eta S. Garmendia; Olerki sariketarako, A. Arrue, J. M. Lekuona eta J. San Martin.

Ibon Sarasola euskaltzain laguntzailearen gutuna, Gipuzkoako Aurrezki-Kutxa Probintzialak Euskal Hiztegi Arauemaile Entziklopediko bat taxutzeko proposamena egin diola eta onartu duela adiaraziaz. Bost urtez lanbide hontaz aritzeko aukera izango duela eta Euskaltzaindiak gomendatutako idazkeraz eramango duela eta gainera bere lanaren berri eginala aditzera emango digula adiaraziaz. Pozik jakin da berri hau.